



2018ko Kultura Ohituren inkesta

1. Txosten metodologikoa

2. Galde-sorta

I.

TXOSTEN METODOLOGIKOA

1.1.- IKERKETAREN ESPARRUAK

Biztanleria-eremua eta eremu geografikoa: 15 urte edo gehiago dituzten eta Euskal Herriko familia-etxebizitzetan bizi diren pertsonak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean eta Iparraldean.

Denbora-eremua: 2018ko irail eta abendu bitartean egin zen informazio-bilketa. Eta datuen erreferentziarako aldia 2017-2018 da azken 12 hilabeteetako kultura-praktikei buruzko galderetarako eta, 2018ko ekain eta irail bitartekoa azken hiru hilabeteetako praktikei buruzko galderetarako.

1.2.- LAGIN-DISEINUA

Laginaren diseinuan erabilitako metodoa honako hau da: ausazko laginketa geruzatua esleipen ez-proportzionalarekin. Horrela egindako laginketak datuen ordezkagarritasuna bermatzen du honako azalpenezko edo gurutzaketako aldagai hauentzat:

- Eremu geografikoa. Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparraldea bereiziz.

EA Eren kasuan, Lurralde Historiko bakoitzerako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) ordezkagarritasuna ere bermatzen du laginketak.

- Biztanle kopurua. 5 biztanlegune bereizten dira: 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrak, 10.001 biztanletik 25.000 biztanlerainokoak, 25.001 biztanletik 50.000 biztanlerainokoak, 50.001 biztanletik 100.000 biztanlerainokoak eta hiriburuak.

Iparraldean, Baiona soilik bereizten da hiriburu gisa.

- Sexua: Emakumeak eta gizonak bereiziz.

- Adin-tarteak. 6 adin-tartetan banatzen da biztanleria: 15-24 urteko biztanleria, 25-34 urtekoa, 35-44 urtekoa, 45-54 urtekoa, 55-64 urtekoa eta 64 urtetik gorakoa.
- Euskara-maila. Euskaldunak eta ez-euskaldunak bereizten dira. Euskalduntzat definitzen dira erantzutean euskaraz ondo edo ondo samar hitz egiten dutela esaten duten pertsonak.

Aldagai horiek lagin-diseinuko geruzak nola egin diren zehaztu dute, eta aldagai horietako lauk haztapen-indizeen ondorengo kalkulua ere bai.

1.3.- LAGINAREN TAMAINA ETA GERUZAKETA

Guztira 6.300 elkarrizketa egin dira datuen ordezkagarritasuna bermatzeko: 3.800 inkesta EAEn, 1.350 Nafarroan eta 1.150 Iparraldean.

Laginaren geruzaketari dagokionez, lehenik lurralde-eremua izan da kontuan (hiru Lurralde Historikoak, Nafarroa eta Iparraldeko hiru lurraldeak) eta, bigarrenik, udalerriko biztanle kopurua.

Sexuarekin, adinarekin eta euskararen ezagutzarekin lotutako aldagaiak kuoten bidez kontrolatu dira lurralde-eremuaren eta biztanle kopuruaren artean sortutako geruza bakoitzaren barruan.

Geruza bakoitzaren lagin adierazgarri bat lortzeko, esleipen ez-proporzionalaren alde egin da lurralde-banaketaren kasuan, baita biztanle kopuruarenean, adin-tarteenean eta euskararen ezagutza-mailan ere.

Lagin-tamainak eta gurutzaketa-aldagaiak banatuta dauden kategoria bakoitzerako lagin-errorearen estimazioak aurkezten dira ondorengo taulan, % 95,5eko konfiantza-mailarako eta gehieneko zehaztugabetasuneko suposiziopean ($p=q=\% 50$).

2018ko KULTURA OHITUREN INKESTA

Laginaren unitateak eta laginketa-erroaren estimazioak

	EAE					Nafarroa					Iparraldea					Euskal Herria					
	Unibertsoa		Lagina		Laginketa-errorea	Unibertsoa		Lagina		Laginketa-errorea	Unibertsoa		Lagina		Laginketa-errorea	Unibertsoa		Lagina		Laginketa-errorea	
	Abs.	%	Abs.	%	± %	Abs.	%	Abs.	%	± %	Abs.	%	Abs.	%	± %	Abs.	%	Abs.	%	± %	
Sexua																					
Gizonak	893.869	48,2	1.872	49,3	2,31	264.045	49,3	670	49,6	3,86	119.746	47,1	570	49,6	4,18	1.277.661	48,3	3.112	49,4	1,79	
Emakumeak	960.632	51,8	1.928	50,7	2,28	271.544	50,7	680	50,4	3,83	134.492	52,9	580	50,4	4,14	1.366.667	51,7	3.188	50,6	1,77	
Adin-tartea																					
15-24 urte	182.758	9,9	560	14,7	4,22	61.519	11,5	204	15,1	6,99	29.872	11,7	162	14,1	7,84	274.149	10,4	926	14,7	3,28	
25-34 urte	237.005	12,8	690	18,2	3,80	90.924	17,0	247	18,3	6,35	33.050	13,0	186	16,2	7,31	360.979	13,7	1.123	17,8	2,98	
35-44 urte	352.859	19,0	672	17,7	3,85	107.755	20,1	238	17,6	6,47	39.264	15,4	198	17,2	7,09	499.878	18,9	1.108	17,6	3,00	
45-54 urte	340.723	18,4	625	16,4	4,00	92.965	17,4	216	16,0	6,80	41.976	16,5	188	16,3	7,28	475.664	18,0	1.029	16,3	3,11	
55-64 urte	291.071	15,7	555	14,6	4,24	71.927	13,4	190	14,1	7,25	40.653	16,0	176	15,3	7,52	403.651	15,3	921	14,6	3,29	
64 baino gehiago	450.084	24,3	698	18,4	3,78	110.499	20,6	255	18,9	6,26	69.423	27,3	240	20,9	6,44	630.006	23,8	1.193	18,9	2,89	
Lurraldea																					
Araba	273.076	14,7	900	23,7	3,33											273.076	10,3	900	14,3	3,33	
Gipuzkoa	601.596	32,4	1.288	33,9	2,78											601.596	22,8	1.288	20,4	2,78	
Bizkaia	979.829	52,8	1.612	42,4	2,49											979.829	37,1	1.612	25,6	2,49	
Nafarroa						535.589	100,0	1350	100,0	2,72						535.589	20,3	1.350	21,4	2,72	
Nafarroa Beherea											26.236	10,3	248	21,6	6,32	26.236	1,0	248	3,9	6,32	
Lapurdi											215.245	84,7	694	60,3	3,79	215.245	8,1	694	11,0	3,79	
Zuberoa											12.757	5,0	208	18,1	6,88	12.757	0,5	208	3,3	6,88	
Euskararen ezagutza																					
Euskaldunak	668.713	36,1	1.645	43,3	2,46	62.680	11,7	580	43,0	4,13	55.422	21,8	494	43,0	4,48	786.815	29,8	2.719	43,2	1,91	
Ez-euskaldunak	1.185.788	63,9	2.155	56,7	2,15	472.909	88,3	770	57,0	3,60	198.816	78,2	656	57,0	3,90	1.857.513	70,2	3.581	56,8	1,67	
Biztanle kopurua																					
Bilbo	299.322	16,1	600	15,8	4,08											299.322	11,3	600	9,5	4,08	

Donostia	156.420	8,4	430	11,3	4,82											156.420	5,9	430	6,8	4,82
Gasteiz	205.140	11,1	430	11,3	4,82											205.140	7,8	430	6,8	4,82
Iruñea						166.755	31,1	420	31,1	4,87						166.755	6,3	420	6,7	4,87
Baiona											41.124	16,2	243	21,1	6,40	41.124	1,6	243	3,9	6,40
50.001-100.000	202.575	10,9	542	14,3	4,29											202.575	7,7	542	8,6	4,29
25.001-50.000	268.187	14,5	508	13,4	4,43	29.319	5,5	138	10,2	8,49	33.588	13,2	231	20,1	6,56	331.094	12,5	877	13,9	3,37
10.001-25.000	358.080	19,3	593	15,6	4,10	95.561	17,8	197	14,6	7,12	47.862	18,8	151	13,1	8,13	501.503	19,0	941	14,9	3,26
10.000 baino gutxiago	364.777	19,7	697	18,3	3,78	243.954	45,5	595	44,1	4,09	131.664	51,8	525	45,7	4,36	740.395	28,0	1.817	28,8	2,34
Totala	1.854.501	100,0	3.800	100,0	1,62	535.589	100,0	1.350	100,0	2,72	254.238	100,0	1.150	100,0	2,94	2.644.328	100,0	6.300	100,0	1,26

Iturria: Siadeco, 2018

1.4.- LAGINAREN AZKEN HAUTAKETA

Ausaz egin da laginaren azken hautaketa, familia-etxe bakoitzean pertsona bakar bat elkarrizketatuz, sexuarekin, adinarekin eta hizkuntza-gaitasunarekin lotutako kuotei jarraikiz, egituratutako eta itxitako galde-sorta baten bidez.

10 eta 30 minutuz luzatu dira elkarrizketak, elkarrizketatutako pertsonak erakusten zituen ohitura-profilaren eta kontsumoaren iraupenaren baitan.

1.5.- HAZTAPEN-PROZEDURA

Arestian azaldu denez, diseinatutako laginketak laginaren ordezagarritasuna bermatzen du geruzen serie batean, baina ez du azterketako unibertsoaren antzeko proportziozko banaketa bat eskaintzen, aldiz.

Horrela, laginaren azterketarako eta esplotaziorako, datuak aztertu beharreko biztanleria lagina zatitu den geruza bakoitzeko azken pisuaren arabera haztatzeari ekin zaio.

Horretarako, Eustaten, INSEEn eta Nafarroako Estatistika Institututan eskuragarri dauden azken estatistikak abiapuntutzat hartuta, lau aldagai nagusiren gurutzaketatik sortzen den geruza bakoitzeko biztanleria kalkulatu da¹:

- lurralde historikoa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa),
- biztanle kopurua (5 geruza),
- adin-tarteak (6 tarte),
- eta euskararen ezagutza (euskalduna/ez-euskalduna),

¹ Indize honen kalkuluan ez da sexu-aldagaia barnean hartu, alde batetik laginean biztanleriaren antzeko proportzio batean banatzen zelako eta, bestetik, ez dugulako datu zehatzik sexuaren araberako biztanleriaren banaketari buruz eta kontuan hartutako gainerako aldagaiei buruz.

Geruza bakoitzaren pisu erlatiboa kalkulaturakoan –laginean zein azterketako biztanlerian–, bakoitzari dagokion haztapen-koefizientea biztanleriako pisu erlatiboa lagineko pisu erlatiboarekin zatituta lortzen da.

$$I_S = X_S / x_S$$

Non:

I_S =Haztapen-koefizientea

X_S = Geruzaren pisu erlatiboa azterketako biztanlerian

x_S = Geruzaren pisu erlatiboa laginean

Elkarrizketa bakoitzari dagokion geruzaren arabeko haztapen-koefizientea beste aldagai bat bezala biltzen da datu-base bakoitzaren erregistroan, eta egin beharreko kalkulu guztiak aldagai horren bidez haztatu behar dira.

Koefiziente edo indize haztatzaile honek datuen analisia ahalbidetzen du esparru geografikoaren arabera (EAE, Nafarroa eta Iparraldea), baita gainerako gurutzaketa-aldagaien arabera ere.

Ondorengo taulan erakusten dira kontuan hartutako geruza bakoitzerako indize haztatzaileak.

